



JUNTAS GENERALES DE ALAVA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

SUPLEMENTO

al Boletín Oficial
del Territorio
Histórico de Álava

GEHIGARRIA

Araba Lurralde
Historikoaren
Aldizkari Ofiziala

2007ko otsailaren 12a, astelehena

ZENBAKIA **18** NÚMERO

Lunes, 12 de febrero de 2007

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

577

Norma Foral 3/2007, de 29 de Enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas

Arabako Biltzar Nagusiek 2007ko urtarrilaren 29an egindako Osoko Bilkuran, ondoko Foru Araua onetsi zuten:

Norma Foral 3/2007, de 29 de Enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas

ZIOEN ADIERAZPENEA

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, zergadunek lortutako errenta zergapetzeko eraturia, zerga nagusietariko bat da Arabako Lurralde Historikoko zerga sistemaren barruan.

Dagoeneko zortzi urte igaro dira aurreko foru araua onartu zenetik, eta hori kontuan hartuz, zerga bere osoan eraberritzea egoki dela iritzi da.

Foru arau berriak hamalau titulu ditu, eta horien artean nabarmentzekoak dira honako gaiak jorratzen dituztenak: zerga-egitatea, zerga-oinarria, likidazio oinarria, kuota osoa eta baterako tributazioa.

I. tituluak zergaren izaerari eta aplikazio eremuari buruzkoa da eta ez du funtsezko aldakuntzarik jasan aurreko arautegiaren aldean.

II. tituluak zerga-egitatea du hizpide, eta bertan zehazten da zergadunak lortzen duen errenta bi motatakoa izango dela: orokorra eta aurrezpenarena. Salbuespenen arloan, esan behar da horietako batzuk beste era batera arautu direla, ezintasun iraunkorragatik jasotzen diren prestazioekin lotutakoa kasu. Ondorio horietarako, hiru kasu uzten ditu salbuetsita foru arauak: 55 urtetik gorako pertsonen ezintasun iraunkor kualifikatu osoa, erabateko ezintasuna eta baliaiezintasun handia. Azpimarratzekoa da, baita ere, salbuesitatzat jotzen diren laguntza publikoen zerrenda, aurreko arautegian agertzen zena, oraingoan kendu egin dela, eta hura kentzearen arrazoia teknikoa baino ez dela izan, erregelamenduzko garapenean zehazteko utzi delako.

JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

577

Norma Foral 3/2007, de 29 de Enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas

Las Juntas Generales de Álava en Sesión Plenaria celebrada el 29 de enero de 2007, aprobaron la siguiente Norma Foral:

Norma Foral 3/2007, de 29 de Enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, que sujeta a gravamen la renta obtenida por el contribuyente, constituye uno de los impuestos centrales del sistema tributario del Territorio Histórico de Álava.

Habiendo ya transcurrido ocho años desde la aprobación de la anterior Norma Foral, se considera oportuno acometer una reforma global de este Impuesto.

La Norma Foral se estructura en catorce Títulos, siendo los más destacables los que hacen referencia al hecho imponible, base imponible, base liquidable, cuota íntegra y tributación conjunta.

El Título I está dedicado a la naturaleza y ámbito de aplicación del Impuesto y no sufre modificaciones sustanciales respecto a la regulación anterior.

El Título II se refiere al hecho imponible y en el mismo se especifica que la renta obtenida por el contribuyente se clasificará en general y del ahorro. En materia de exenciones, se establece una regulación diferente de algunas de las mismas, destacando la relacionada con las prestaciones por incapacidad permanente. A estos efectos, la Norma Foral deja exentas la incapacidad permanente total cualificada de mayores de 55 años, la absoluta y la gran invalidez. También hay que destacar, con respecto a la normativa anterior, la ausencia del listado de ayudas públicas que se consideran exentas, ausencia de carácter técnico, ya que su especificación se remite a un posterior desarrollo reglamentario.

Salbuespenen barruan foru arauak kasu berriak uzten ditu zergatik salbuetsita, hala nola bizi arteko errenta aseguruak eratzeko agerian jartzen diren errentak, aurrezpen sistematikoko banakako planetatik datozenean, dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak, 1.500 euroko mugarekin urtean, eta senitartekoen zaintzarako eta laguntza pertsonalizaturako ematen diren prestazio ekonomiko publikoak, betiere autonomia pertsonala sustatzeko eta besteren beharra duten pertsonak zaintzeko legearen ondorio badira.

III. titulua zergadunei buruzkoa da, eta ez dakar aldaketa esanguratsurik aurreko arautegiaren aldean.

IV. tituluak zerga-oinarria arautzen du eta hainbat kapitulu ditu, bat errenta iturri bakoitzeko. Azpimarratu beharreko lehendabiziko gauza da foru arauak bitan banatzen duela zerga-oinarria (orokorra eta aurrezpenarena bereizten ditu), eta bakoitzari zerga tratamendu desberdina ematen diola.

Lanaren etekinei dagozkien berrikuntzen barruan, aipatzekoa da beste bi prestazio mota sartu direla: batetik, enpresen gizarte aurreikuspeneko planen onuradunek jasotzen dituzten prestazioak, eta bestetik menpekotasun aseguru onuradunek autonomia pertsonala sustatzeko eta besteren beharra duten pertsonak zaintzeko legeari jarraikiz jasotakoak.

Lan etekin horien gastu kengarri dagokienez, nabarmentzekoa da langileen sindikatuei ordaindutako kopuruak kuota osoaren kenkarrietara eraman direla. Gainera, orain ez dira kontuan hartzen zergadunaren eta lan etekinak ematen dizkion pertsona edo entitatearen artean sortutako auzietatik zuzenean eratorzen diren defentsa juridikoko gastuak.

Bestalde, lanaren hobaria gehitu egin da, eta haren portzentajeak ere igo egin dira langile aktibo ezinduen kasuan.

Ekonomia jardueren etekinetan sartutako aldaketen artean, aipatzekoa da erregulazioa sinplifikatu dela zuzeneko zenbatespenaren metodoan modalitate erraztu bakarra utziz.

Kapitalaren errenten tributazioa da, zalantzarik gabe, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga berriaren gehien aldatzen den alderdi bat. Izan ere, errenta horien fiskalitatea egokitzen saiatu da OCDEko herrialdeek markatutako ildotik, kapitalen mugimendu askatasuna eta merkatuek balibide horiek eskuratzeko duten lehiakortasuna kontuan hartuta.

Arautegiak izan duen aldaketa garrantzitsu horrek berekin ekarri du zergak beste egitura bat izatea eta zergapetu beharreko errentan bi kontzeptu berri agertzea: errenta orokorra eta aurrezpenaren errenta.

Aurrezpenaren errenta berri honek hiru osagai ditu: etxebizitzaren errentamendutik datozten kapital higiezinaren etekinak, kapital higikorren etekin gehienak, eta ondare elementuak eskualdatzean agerian gertatzen diren irabazi eta galerak.

Etekin horiek guztiak aurrezpenaren oinarrian sartzen dira eta %18ko zerga tasa aplikatzen zaie. Tasa finko baten arabera zergapetzen direnez, zergaren progresibitatearen ondorioak arintzeko ezarritako zeuden integrazio portzentajeak desagertu egin dira. Tratamendu horrekin neutraltasun handiagoa lortu nahi izan da, ez baitzaio begiratzen ez errenten jatorriari ez horien sortzealdiari ere.

Kapital higiezinaren etekinei dagokienez, lehen esandakoaz gainera, hainbat berrikuntza sartu dira. Lehenik, aipatzekoa da orain ez dela zergapetzen ohikoa ez den etxebizitzaren titulartasunagatik egotzitako errenta.

Bigarrenik, etxebizitzetara zuzendutako higiezinaren errentamendua bultzatzeko eta horiek merkatura ateratzea sustatzeko, etekin garbia kalkulatzeko garaian %20ko hobaria aplikatuko da, baldin eta lortutako errenta etxebizitzaren errentamendutik baldin badator. Era berean, ezabatu egin dira etekin hau lortzeko gastu kengarri guztiak, salbu eta horien sorburu diren ondasunak, eskubideak edo erabilera nahiz gozamen ahalmenak eskuratu, birgaitu edo hobetzeko inbertitu diren besteren kapitalen interesak direnean.

Ondare irabazi eta galeren arloan oso aldaketa gutxi sartu dira. Garrantzitsuena da ondare elementuak eskualdatzeagatik agerian

Dentro de las exenciones se incluyen nuevos supuestos como las rentas que se pongan de manifiesto en el momento de la constitución de rentas vitalicias aseguradas resultantes de los planes individuales de ahorro sistemático, los dividendos y participaciones en beneficios con el límite de 1.500 euros anuales y las prestaciones económicas públicas vinculadas al servicio, para cuidados en el entorno familiar y de asistencia personalizada que se deriven de la Ley de promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia.

El Título III, referido a los contribuyentes, no sufre modificaciones sustanciales respecto a la regulación anterior.

El Título IV regula la base imponible y se estructura en diversos Capítulos dedicados a cada una de las diferentes fuentes de renta. Lo primero que hay que destacar es que la Norma Foral va a dividir la base imponible en general y del ahorro con diferente tratamiento tributario para cada una de ellas.

Dentro de las novedades relativas a los rendimientos del trabajo se incluyen las prestaciones percibidas por los beneficiarios de los planes de previsión social empresarial, así como las prestaciones percibidas por los beneficiarios de los seguros de dependencia conforme a la Ley de promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia.

En materia de gastos deducibles de estos rendimientos del trabajo, destaca el traslado a las deducciones de la cuota íntegra, de las cuotas satisfechas a los sindicatos de trabajadores, así como la eliminación de la deducción de los gastos de defensa jurídica derivados de litigios suscitados en la relación del contribuyente con la persona o entidad de la que se perciben los rendimientos del trabajo.

Por otra parte, la bonificación del trabajo se incrementa y, al mismo tiempo, se elevan los porcentajes de la misma para el caso de los trabajadores activos con discapacidad.

Entre las modificaciones introducidas en los rendimientos procedentes de las actividades económicas cabe destacar la simplificación de la regulación al establecerse una única modalidad de estimación directa simplificada.

La tributación de las rentas del capital es uno de los aspectos que sufre mayor variación en el nuevo Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas debido a que, en la línea marcada por los países de la OCDE, se ha tratado de adecuar la fiscalidad de estas rentas, teniendo en cuenta la libertad de movimiento de capitales y la competencia de los diferentes mercados por la captación de estos recursos.

Esta importante modificación en la normativa da como resultado una nueva estructura del Impuesto surgiendo dos conceptos nuevos en la renta sometida a gravamen: la renta general y la renta del ahorro.

Esta nueva renta del ahorro está compuesta por los rendimientos del capital inmobiliario procedentes del arrendamiento de viviendas, por la mayor parte de los rendimientos del capital mobiliario y por las ganancias y pérdidas que se pongan de manifiesto con ocasión de la transmisión de elementos patrimoniales.

Estos rendimientos que se integran en la base del ahorro tributan al tipo del 18 por 100. Dado que la tributación se efectúa a un tipo fijo, se eliminan los porcentajes de integración que pretendían atenuar los efectos de la progresividad del tributo. Con este tratamiento se pretende obtener una mayor neutralidad, puesto que no se atiende ni al origen de las rentas ni al plazo de su generación.

Por lo que a los rendimientos de capital inmobiliario se refiere, además de lo señalado anteriormente, se introducen varias novedades. En primer lugar, hay que mencionar la eliminación del gravamen de la renta imputada por la titularidad de una vivienda no habitual.

En segundo lugar, con el fin de fomentar el arrendamiento de inmuebles destinados a viviendas e incentivar la salida al mercado de las mismas, se aplicará una bonificación del 20 por 100 para el cálculo del rendimiento neto, siempre que la renta proceda del arrendamiento de viviendas. Al mismo tiempo, se eliminan todos los gastos deducibles para la obtención de este rendimiento, salvo los intereses de los capitales ajenos invertidos en la adquisición, rehabilitación o mejora de los bienes, derechos o facultades de uso o disfrute de los que procedan dichos rendimientos.

Las modificaciones en materia de ganancias y pérdidas patrimoniales son escasas, excepción hecha de la inclusión dentro de la

gertatzen diren ondare irabazi eta galerak aurrezpenaren errentan sartzen direla sortze aldia zeinahi dutela ere.

Era berean, gai honetan bada garrantzi handiko alderdi bat, hain zuzen ere, 1994ko abenduaren 14a baino lehen eskuratutako elementuak eskualdatzeagatik lortutako ondare irabaziak zergapeztearekin zerikusia duena. Horrela, lehenengo xedapen iragankorrek aldi baterako araubide bat arautzen du irabazi horien tratamendu fiskalerako, eta esaten du zergadunek "murrizketa koefiziente kontsolidatuak" deiturikoak aplikatzen jarraitu dezaketela data hori baino lehen eskuratutako ondare elementuei dagokienez. Ondorio horietarako, irabaziak denboran linealki lortutakotzat jotzen dira, igarotako egun kopuruari begiratuz.

V. tituluan likidazio oinarria definitzen da, eta zerga-oinarriari egin dakizkiokeen murrizketak ezartzen dira. Azken horiek aurreko arauan ezarritako berberak dira, hau da, konpentsazio pentsioak eta urteko mantenua ordaintzea, batera tributatzea eta gizarte aurreikuspeneko sistemei ekarpenak egitea.

Zehazki esateko, gizarte aurreikuspeneko sistemei dagokienez, nabarmentzekoa da murriztu daitezkeen kopuru eta produktuak bere horretan utzi direla epe luzerako aurrezpena helburu duten aurreikuspen sistemei egonkortasuna eman nahi izan zaielako, ez baita komeni haien araubidea etengabe aldatzea.

Guztiarekin ere, gizarte aurreikuspeneko sistema horiekin jarraitzeaz batera, badaude aipatu beharreko gauza berriak ere, hain zuzen ere, menpekotasun ertainaren edo handiaren arriskua bakarrik estaltzen duten aseguru pribatuen agerpena. Izan ere, azken horiek autonomia pertsonala sustatzeko eta besteren beharra duten pertsonak zaintzeko legearekin bat eratuak dira, Arabako Lurralde Historikoko biztanleen ongizatearekin loturiko gaietan Foru Aldundiak fiskalki laguntzeko markatutako bideari jarraikiz.

VI. tituluak erreforma honen beste berrikuntza nagusietako bat dakar hizpide, tarifarena hain zuzen, bere tartekak murriztu eta orain bost baino ez direlako. Orobat, gehieneko tasa marjinala %48tik 45era murriztu da, inguruko herrialdeetan dauden sistemetara hurbiltzeko. Nabarmentzekoa da, baita ere, "0" tarteak kendu egin dela eta hori konpentsatzeko 1.250 euroko kenkari orokorra sortu dela, autoliquidazio bakoitzagatik egiteko. Aurreko arautegian ez zegoen horrelako konpentsaziorik.

Aurrezpenaren likidazio oinarriari %18ko zerga tasa aplikatzen zaio, aurreko arautegiak urtebetetik gorako aldian sortutako irabazietarako ezarritakoa baino portzentaje handiagoa. Alabaina, tasa hori aurrezpenaren oinarria osatzen duten errenta guztiei aplikatuko zaie, baita urtebetetik beherako aldian sortutakoei ere. Izan ere, azken horiek zergaren eskalaren arabera tributatzen zuten lehen.

VII. tituluan, kuota likidoari buruzkoan, besteak beste ondorengo ahaideen kenkaria hartzen da hizpide. Bere egitura eta kontzeptua aldatu ez badira ere, kenkari honen zenbatekoak handitu egin dira, eta batik bat hirugarren seme-alabari dagokiona. Seme-alaben urteko mantenua ordaintzeagatik aplikatzen den kenkaria ere bere horretan mantendu da, zerga onuraren aurreko portzentaje berdinarekin. Aldiz, aldatetak sartu dira kenkariaren muga kalkulatzeko metodoan; izan ere, seme-alaba bakoitzarentzat kopuru jakin bat finkatu beharrean, arauak dio kenkari honen muga ondorengo ahaideengatik aplikatzen den kenkariaren %30 izango dela; horren ondorioz, azken kenkari hori handitzen den neurrian, seme-alaben urteko mantenua ordaintzeagatik aplikatu beharreko kenkaria ere automatikoki handituko da.

Aipagarria da, baita ere, aurreko ahaideengatik aplikatzen diren kenkariaren nabarmen handitu direla, 211 eurotik 250 eurora hain zuzen. 65 urtetik gorakoentzat dagoen kenkaria 209 eurotik 300 eurora gehitu da eta 75 urtetik gorakoena ere 417 eurotik 550 eurora igaro da. Adineko pertsonen laguntza ematen jarraitu nahi izan dela da horren arrazoia, foru arau honetan sartutako neurrietako askotan agerian geratzen den bezala. Hain nabarmena ez bada ere, zergadunaren ezigaitasun mailaren arabera ezarrita dauden kenkari tarteek ere igoera izan dute.

Berrikuntza garrantzitsua da kenkari bat sortu dela pertsona ezgaituaren ondare babestuari ekarpenak egiteagatik. Horrela, zergadunek ekarpen horien %30 kendu dezakete, urteko muga 3.000 eurokoa izanik.

renta del ahorro de las ganancias y pérdidas patrimoniales que se pongan de manifiesto con ocasión de transmisiones de elementos patrimoniales, sin tener en cuenta su periodo de generación.

Asimismo, en esta materia resulta relevante la tributación de las ganancias patrimoniales derivadas de la transmisión de elementos adquiridos con anterioridad a 31 de diciembre de 1994. De esta forma, la Disposición Transitoria Primera regula el régimen transitorio relativo al tratamiento fiscal de dichas ganancias y mantiene la aplicación de los llamados "coeficientes de abatimiento consolidados" por los contribuyentes en relación con elementos patrimoniales adquiridos con anterioridad a dicha fecha. A estos efectos, las ganancias se entienden generadas de forma lineal en el tiempo, atendiendo al número de días transcurridos.

En el Título V se define la base liquidable y se establecen las reducciones que pueden practicarse sobre la base imponible que, al igual que en la anterior normativa, se limitan al abono de pensiones compensatorias y anualidades por alimentos, a la tributación conjunta y a las aportaciones a sistemas de previsión social.

En concreto, con respecto a los sistemas de previsión social, hay que destacar el mantenimiento de las cuantías y de los productos que pueden ser objeto de reducción, con el fin de estabilizar estos sistemas previsionales destinados al ahorro a largo plazo y cuya regulación no debe ser objeto de constantes modificaciones.

Ahora bien, junto a esta continuidad de los sistemas de previsión social hay que mencionar la aparición de los seguros privados que cubran exclusivamente el riesgo de dependencia severa o de gran dependencia conforme a lo dispuesto en la Ley de promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia, en la línea marcada por la Diputación Foral de incentivar fiscalmente los temas relacionados con el bienestar social de los habitantes del Territorio Histórico de Álava.

El Título VI se dedica a la tarifa del Impuesto constituyendo otra de las novedades más importantes de esta reforma por cuanto se reducen sus tramos a cinco. Igualmente, el tipo marginal máximo descendiendo del 48 al 45 por 100, lo que nos acerca a los sistemas existentes en los países de nuestro entorno. También resulta destacable la supresión del tramo a tipo cero, supresión que se compensa con la creación de una deducción general de 1.250 euros, que se practicará por cada autoliquidación y que no existía en la anterior normativa.

El tipo de gravamen aplicable a la base liquidable del ahorro es el 18 por 100. Este tipo impositivo resulta más elevado que el establecido, en la normativa anterior, para las ganancias producidas en un plazo superior a un año. Ahora bien, dicho tipo se aplicará, a todas las rentas que conforman la base del ahorro, incluidas las generadas en un plazo inferior a un año, que antes tributaban según la escala del Impuesto.

En el Título VII, dedicado a la cuota líquida, la deducción por descendientes se mantiene en cuanto a su estructura y concepto, si bien los importes se elevan, sobre todo el correspondiente al tercer hijo. La deducción por abono de anualidades por alimentos a los hijos también continúa, con el mismo porcentaje de incentivo fiscal, modificándose la técnica de cálculo del límite de la deducción y, en lugar de fijar una cuantía determinada para cada hijo, se establece una remisión al 30 por 100 de la deducción por descendientes, de manera que en la medida que aumente esta última también aumentará, de manera automática, el límite de la deducción por anualidades por alimentos a los hijos.

Destaca, asimismo, el sustancial aumento de las deducciones por ascendientes que se incrementa de 211 a 250 euros. La deducción por edad para mayores de 65 años se eleva de 209 a 300 euros, y para mayores de 75 años, de 417 a 550 euros, en la línea de apoyo a estas personas que se percibe claramente en muchas de las medidas incluidas a lo largo de toda la Norma Foral. También experimentan una subida, si bien no tan acusada, los diferentes tramos de deducción en función del grado de discapacidad del contribuyente.

Constituye novedad relevante la deducción por aportaciones realizadas al patrimonio protegido de la persona con discapacidad, en virtud de la cual los contribuyentes podrán deducir el 30 por 100 de las mismas, con el límite anual de 3.000 euros.

Ohiko etxebizitzaren kenkariak sinplifikatu egin dira, eta batez ere ohiko etxebizitza erosteagatik aplikatzen dena. Kenkari portzentajea %18koa da (%23, familia ugariantzat eta 35 urtetik beherakoentzat). Bere aldetik, etxebizitzaren kreditu fiskala 36.000 euroraino igo da eta, gainera, kreditu hori zergadun bakoitzeko aplikatuko da, ez etxebizitza bakoitzeko, lehen egiten zen bezala. Azkenik, urtean gehienez egin daitekeen kenkaria 2.160 eurokoa da, nahiz eta familia ugarien kasuan eta 35 urtetik beherakoentzat muga hori 2.760 eurokoa izango den.

Nabarmenezkoa da, baita ere, sindikatuei ordaindutako kuotek %30eko kenkaria dutela orain. Lan etekinen gastu kengarria ordeztu du kenkari honek, aurreko arautegian kontzeptu berberagatik aurreikusita zegoena.

Zergaren kudeaketa arloan, komeni da azpimarratzea autoliquidazio proposamenak islatuta geratu direla foru arauan. Izan ere, aurrerapen handia izaten ari dira zergadunari urteko autoliquidazio obligazioak betetzen errazteko, eta oso harrera ona izan dute Arabako herritarren artean. Amaitzeko, laugarren xedapen gehigarriak jasota dakar ekonomia jardueren etekinak moduluen bidez zehazten direnean etekin horien gainean atxikipena egin beharko dela. Zalantzarik gabe, zerga iruzurrari aurre egiteko hartutako neurria da hau.

I. TITULUA

ZERGAREN IZAERA ETA APLIKAZIO EREMUA

1. artikulua.- Izaera.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga zuzeneko tributu bat da, izaera pertsonal eta subjektiboa duena eta pertsona fisikoen errentak kargatzen dituena foru arau honetan xedatutako eran.

2. artikulua.- Aplikazio subjektiboko eremua.

Foru arau honetan xedatutakoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondoko zerga-obligaziodunei aplikatuko zaie:

1.- Zergadun gisa:

a) Hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera ohiko bizilekua Araban duten pertsona fisikoei.

Familia unitateko zergadunek ohiko bizilekua lurralde desberdinetan eduki eta batera tributatzea aukeratzen badute foru arau honen 99. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Arabako Foru Aldundian tributatu dute likidazio oinarririk handieneko kidearen ohiko bizilekua Araban dagoenean.

Liquidazio oinarririk handiena kalkulatzearen ondorioetarako, bizilekua Araban ez duten zergadunei dagokien arautegia aplikatuko zaie.

b) Foru arau honen 4. artikuluko 1 eta 2 idatz zatietan ezarritakoaren arabera ohiko bizilekua atzerrian duten pertsona fisikoei, idatz zati horietan jasotako eran.

2.- Konturako ordainketak egitera behartutako gisa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarengatik atxikipenak eta konturako sarrerak egitera behartuta daudenei, baldin eta konturako ordainketa horien zenbatekoak Arabako Foru Aldundian ordaindu behar badira Ekonomia Itunaren 7.etik 11. artikulura bitartean xedatutakoarekin bat etorritik.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa xedatuta ere, atxikipenak eta konturako sarrerak administrazio kontseiluetako, hauen ordezkari batzordeetako eta beste ordezkari organoetako administratzaile eta kideek jasotako ordainsarien gainean egiten direnean, etekinak edozein motatako entitateen funts propioetan parte hartzeagatik lortzen direnean, eta, orobat, interesak eta gainerako kontraprestazioak obligazioetatik eta antzeko tituluetatik datozeanean, foru arau honetan xedatutakoa aplikatuko da baldin eta entitate ordaintzaileari Sozietateen gaineko Zergaren Arabako arautegia aplikagarri bazaio.

3. artikulua.- Ohiko bizilekua.

1. Pertsona fisiko batek ohiko bizilekua Arabako Lurralde Historikoan duela ulertuko da honako erregelak elkarren segidan aplikatuz:

Se simplifican las deducciones por vivienda habitual, sobre todo la relativa a la adquisición de vivienda habitual. El porcentaje de deducción se establece en el 18 por 100 (23 por 100 para el caso de familias numerosas y menores de 35 años). El crédito fiscal de vivienda se eleva a 36.000 euros y, además, este crédito se aplicará por cada contribuyente, en lugar de por cada vivienda, como sucedía anteriormente. Por último, se establece un límite anual de deducción de 2.160 euros, que en el caso de las familias numerosas y menores de 35 años será de 2.760 euros.

Destaca también la deducción del 30 por 100 de las cuotas satisfechas a sindicatos, que viene a sustituir al gasto deducible de los rendimientos del trabajo que, por el mismo concepto, estaba previsto en la normativa anterior.

En el ámbito de la gestión del Impuesto, conviene destacar el reflejo en la Norma Foral de las propuestas de autoliquidación, que están suponiendo un gran avance en la simplificación para el contribuyente a la hora de cumplir con sus obligaciones anuales de autoliquidación y que tan favorable acogida están teniendo entre los ciudadanos de Álava. Por último resulta relevante la obligación de retención, prevista en la Disposición Adicional Cuarta, sobre los rendimientos de actividades económicas que se determinen mediante módulos, medida claramente tendente a combatir el fraude fiscal.

TÍTULO I

NATURALEZA Y ÁMBITO DE APLICACIÓN DEL IMPUESTO

Artículo 1.- Naturaleza.

El Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas es un tributo de carácter directo y naturaleza personal y subjetiva que grava la renta de las personas físicas en los términos previstos en esta Norma Foral.

Artículo 2.- Ámbito de aplicación subjetiva.

Lo dispuesto en esta Norma Foral será de aplicación a los siguientes obligados tributarios del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas:

1º. A título de contribuyente:

a) A las personas físicas que, conforme a lo dispuesto en el artículo siguiente, tengan su residencia habitual en Álava.

Cuando los contribuyentes integrados en una unidad familiar tuvieran su residencia habitual en territorios distintos y optasen por la tributación conjunta, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 99 de esta Norma Foral, tributarán a la Diputación Foral de Álava cuando tenga su residencia habitual en este Territorio el miembro de la unidad familiar con mayor base liquidable.

A los efectos del cálculo de la mayor base liquidable, a los contribuyentes no residentes en Álava se les aplicará la normativa que les corresponda.

b) A las personas físicas que tuviesen su residencia habitual en el extranjero de conformidad con lo establecido en los apartados 1 y 2 del artículo 4 de esta Norma Foral, en los términos previstos en los mismos.

2º. A título de obligado a realizar pagos a cuenta, a los obligados a practicar retenciones e ingresos a cuenta por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, cuando los referidos pagos a cuenta, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 7 a 11 del Concierto Económico, deban ser ingresados en la Diputación Foral de Álava.

No obstante lo dispuesto en el párrafo anterior, para el caso de retenciones e ingresos a cuenta sobre retribuciones que se perciban por la condición de administradores y miembros de los Consejos de Administración, de las Juntas que hagan sus veces y de otros órganos representativos y en el caso de rendimientos obtenidos por la participación en fondos propios de cualquier entidad, así como los intereses y demás contraprestaciones de obligaciones y títulos similares, será de aplicación lo dispuesto en esta Norma Foral cuando a la entidad pagadora le resulte de aplicación la normativa alavesa reguladora del Impuesto sobre Sociedades.

Artículo 3.- Residencia habitual.

1. Se entenderá que una persona física tiene su residencia habitual en el Territorio Histórico de Álava aplicando sucesivamente las siguientes reglas:

1.a Zergaldiko egun gehienak Euskal Autonomia Erkidegoan emanik, Araban egindako egun kopurua Euskal Autonomia Erkidegoko beste bi lurralde historikoetako bakoitzean egindakoa baino handiagoa denean.

Lurralde jakin batean zenbat denbora eman den zehazteko, kanpoan eman diren aldi baterako egonaldiak konputagarri izango dira, salbu eta frogatzen bada egoitza fiskala beste herrialde batean dagoela.

Egoitza fiskala paradisu fiskaltzat jotzen diren herrialde edo lurraldeetako batean dagoenean, bertan urte naturaleko 183 egun baino gehiago egin direla frogatzeko eska dezake Zerga Administrazioak.

Bestelakorik frogatzen ez bada, pertsona fisiko bat Araban bizi dela joko da pertsona horren ohiko etxebizitza lurralde horretan dagoenean.

2.a Bere interes gune nagusia Araban duenean, zirkunstantzia hori gertatzen dela iritziko da zerga honetako zerga-oinarriaren zatirik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan lortua izanik, Araban lortutako zerga-oinarria beste bi lurralde historikoetako bakoitzean lortutakoa baino handiagoa denean. Bi ondorio horietarako, kapital higikorretik eratorritako errentak eta ondare irabaziak eta egotzitako zerga-oinarriak hortik kanpo geratzen dira.

3.a Zerga honen ondorioetarako aitortu duen azken egoitza Araban dagoenean.

Lehenengo erregela aplikatuta ere zergadunaren ohiko bizilekua zein lurraldetan dagoen -komun edo foralean- zehaztea ezinezkoa gertatzen bada, orduan bigarren erregela aplikatuko da. Lehen eta bigarren erregeletan xedatutakoa behin aplikatu ondoren zirkunstantzia bere gertatzen denean, orduan hirugarren erregela aplikatuko da.

2. Lurralde espainiarrean egoiliar diren pertsona fisikoek ez badute bertan ematen 183 egun baino gehiago urte naturalaren barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko egoilartzat hartuko dira beren jardueraren enpresarial edo profesionalen gune nagusi edo basea edo beren interes ekonomikoena lurralde horretan kokaturik dagoenean.

Aurreko paragrafoan jasotakoaren arabera pertsona fisikoen ohiko bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan dagoenean, pertsona horiek Araban bizi direla joko da beren ekonomia edo lanbide jardueren interes gune edo basea edo beren interes ekonomikoena lurralde horretan kokatzen bada.

3. Pertsona fisiko bat lurralde espainiarreko egoiliarra dela uste bada, legez banandu gabeko ezkontideak eta honen menpeko diren adingabeko seme-alabek ohiko bizilekua Araban dutelako, pertsona fisiko horren ohiko bizilekua Araban dagoela iritziko da. Uste horren aurka kontrako frogak aurkez daitezke.

4. Ohiko bizilekua aldatzen denean, honako irizpideak izango dira kontuan:

a) Araban bizi den zergadunak ohiko bizilekua beste lurralde batera (komun edo foralera) aldatzen badu, edo ohiko bizilekua beste lurralde batean (komun edo foralean) izanik bizileku hori Arabara aldatzen badu, egoitza berriari dagokion lekuan beteko ditu, une horretatik aurrera, bere zerga obligazioak, egoitza berria konexio puntutatik hartzen denean.

Horrez gainera, hurrengo b) letran ezarritakoaren indarrez, uste bada ez dela egoitza aldatetarik izan, zergadunek beren ohiko bizilekua dagoen tokiko Zerga Administrazioari aurkeztu beharko dizkiote dagozkien aitortpenak, eta berandutze interesak ordaindu.

b) Bizileku aldatetarik ez dute ondorioz izango helburu nagusia zerga gutxiago ordaintzea denean.

Bizileku berrian egiten diren egonaldiak gutxienez eta etenik gabe hiru urtetik gorakoak direnean ulertuko da bakarrik bizileku aldateta egon dela. Ondoko zirkunstantzia hauek gertatzen direnean, ordea, ez da bizileku aldatetarik egongo:

1.a Bizilekua aldatu den urtean edo hurrengoan zerga honetako zerga-oinarria bizilekua aldatu aurreko urtekoa baino gutxienez %50 handiagoa denean.

Familia unitatea osatzen duten pertsona fisikoek tributazio modu desberdinak (banakakoa edo baterakoa) aukeratu badituzte aurreko paragrafoan aipatu diren urteetan, tributazio erak homogeneizatu egingo dira paragrafo horretan aipatzen diren oinarriak alderatzeko,

1ª. Cuando permaneciendo en el País Vasco un mayor número de días del período impositivo, el número de días que permanezca en Álava sea superior al número de días que permanezca en cada uno de los otros dos Territorios Históricos del País Vasco.

Para determinar el período de permanencia se computarán las ausencias temporales, salvo que se demuestre la residencia fiscal en otro país.

Cuando la residencia fiscal esté fijada en alguno de los países o territorios considerados como paraísos fiscales, la Administración tributaria podrá exigir que se pruebe la permanencia en el mismo durante 183 días en el año natural.

Salvo prueba en contrario, se considerará que una persona física permanece en Álava cuando radique en este territorio su vivienda habitual.

2ª. Cuando tenga en Álava su principal centro de intereses, se considerará que se produce tal circunstancia cuando obteniendo una persona física en el País Vasco la mayor parte de la base imponible de este Impuesto, obtenga en Álava más parte de la base imponible que la obtenida en cada uno de los otros dos Territorios Históricos, excluyéndose, a ambos efectos, las rentas y ganancias patrimoniales derivadas del capital mobiliario y las bases imponibles imputadas.

3ª. Cuando sea Álava el territorio de su última residencia declarada a efectos de este Impuesto.

La regla segunda se aplicará cuando, de conformidad con lo dispuesto en la primera no haya sido posible determinar la residencia habitual en ningún territorio, común o foral. La regla tercera se aplicará cuando se produzca la misma circunstancia, tras la aplicación de lo dispuesto en las reglas primera y segunda.

2. Las personas físicas residentes en territorio español, que no permanezcan en dicho territorio más de 183 días durante el año natural, se considerarán residentes en el País Vasco cuando en el mismo radique el núcleo principal o la base de sus actividades empresariales o profesionales o de sus intereses económicos.

Cuando de conformidad con lo previsto en el párrafo anterior, las personas físicas tengan su residencia habitual en el País Vasco, se considerará que las mismas residen en Álava cuando radique en dicho territorio el núcleo principal o la base de sus actividades empresariales o profesionales o de sus intereses económicos.

3. Cuando se presuma que una persona física es residente en territorio español, por tener su residencia habitual en Álava su cónyuge no separado legalmente y los hijos menores de edad que dependan de aquélla, se considerará que tiene su residencia habitual en dicho territorio. Esta presunción admite prueba en contrario.

4. Cuando se produzcan cambios en la residencia habitual se atenderá a los siguientes criterios:

a) Los contribuyentes residentes en Álava que pasasen a tener su residencia habitual en otro territorio, foral o común, o que teniendo su residencia habitual en otro territorio, foral o común, pasasen a tener su residencia habitual en Álava, cumplimentarán sus obligaciones tributarias de acuerdo con la nueva residencia, cuando ésta actúe como punto de conexión, a partir de ese momento.

Además, cuando, en virtud de lo previsto en la letra b) siguiente, deba considerarse que no ha existido cambio de residencia, los contribuyentes deberán presentar las declaraciones que correspondan ante la Administración tributaria de su residencia habitual, con inclusión de los intereses de demora.

b) No producirán efecto los cambios de residencia que tengan por objeto principal lograr una menor tributación efectiva.

Se presumirá, salvo que la nueva residencia se prolongue de manera continuada durante, al menos, tres años, que no ha existido cambio cuando concurren las siguientes circunstancias:

1ª. Que el año en el cual se produce el cambio de residencia o en el siguiente, la base imponible de este Impuesto sea superior en, al menos, un 50 por 100 a la del año anterior al cambio.

En el supuesto de personas físicas integradas en una unidad familiar que hubieran realizado opciones de tributación, individual o conjunta, diferentes en los años a que se refiere el párrafo anterior y a los exclusivos efectos de realizar la comparación de bases que en

eta, horretarako, behar diren individualizazio arauak aplikatuko dira, hala badagokio.

2.a Egoera hori gertatzen den urtean, zerga honengatik ordaindutakoa aldaketa egin aurreko lurraldean aplikatzen den arautegiaren arabera ordainduko zena baino txikiagoa denean.

3.a Aurreko 1. zirkunstantzian aipatutako egoera gertatu eta hurrengo urtean, edo horren ondorengoan, ohiko bizilekua berriz ere hasierako lurraldean kokatzen denean.

5. Espainiak izenpetutako nazioarteko itunetatik eratorzen diren arau bereziak ezin aplikatu daitezkeenean, ohiko bizilekua Araban duten atzerritarrak ez dira zergaduntzat joko –elkarrekotasun baldintzarekin- betiere zirkunstantzia hori foru arau honetako ondoko artikuluan jasotzen diren kasuetako baten ondorioz gertatzen bada.

4. artikulua.- Zergak derrigorrez ordaintzeko kasu bereziak.

1. Nazionalitate espainiarra duten pertsonen, legez banandu gabeko ezkontideari edo haren adingabeko seme-alabei foru arau hau aplikatuko zaie, baldin eta zerga honetarako Araban onartuta dagoen zerga arautegira lotuta egonik, ohiko bizilekua atzerrira aldatzen badute gisa honetako pertsonak izateagatik:

a) Espainiako misio diplomatikoetako kideak, barruan sartuta bai Misio Burua eta bai pertsonal diplomatiko, administratibo, tekniko edo zerbitzuetakoa.

b) Espainiako bulego kontsularretako partaideak, barruan sartuta bai haien Burua eta bai haien atxikitako funtzionarioak nahiz zerbitzuko langileak. Kanpoan uzten dira ohorezko kontsulordeak, ohorezko kontsulatu-agente edo horien menpeko langileak.

c) Espainiako Estatuko kargu edo enplegu ofizialen titular direnak, nazioarteko erakundeen aurrean kreditatutako delegazio eta ordezkaritza iraunkorretako partaide gisa aritzen direnean edo atzerrian dauden delegazio edo misioetan begirale lana egiten dutenean.

d) Atzerrian izaera diplomatiko edo kontsularrik gabeko kargu edo enplegu ofizial bat betetzen duten funtzionario aktiboak.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarentzat lan egiten duten funtzionarioak edo kontratupeko langileak, Euskal Autonomiak atzerrian dituen bulegoetara bidaliak izan badira.

2. Aurreko idatz zatian ezarritakoa ez da aplikatuko ondoko kasuetan:

a) Bertan aipatzen diren pertsonak aktiboan dauden funtzionario publikoak ez direnean edo kargu edo enplegu ofizialik ez dutenean, eta aurreko idatz zati horretan aipatutako baldintzetako edozein bete baino lehen ohiko bizilekua atzerrian dutenean.

b) Legez bananduta ez dauden ezkontideak edo adingabeko seme-alabak izanez gero, ezkontideetako batek -ama zein aita izan-aurreko 1 idatz zatian zerrendatutako baldintzak bete baino lehenago jarri dutenean ohiko bizilekua atzerrian.

3. Lurralde espainiarrera aldatzeagatik egoitza fiskala Araban kokatzen duten pertsona fisikoek aukera izango dute Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergagatik tributatzeko bizilekua aldatzen den zergaldian eta hurrengo bostetan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunak izateari utzi gabe, betiere honako baldintzak betetzen badira erregelamenduz ezartzen den eran:

a) Berriz ere Espainiara bueltatu aurreko hamar urteetan Espainian ez bizi izana.

b) Toki aldaketa hori lan kontratu baten ondorioz gertatzea. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da Espainiako enplegu-emaile batekin harreman laboral bat, arrunta zein berezia, nahiz harreman estatutario bat hasten denean, edo toki aldaketa enplegu-emaileak agindu duenean eta honen aldetik toki aldaketaren gutuna dagoenean, eta zergadunak lortzen dituen errentak lurralde espainiarrean kokatutako establezimendu iraunkorren bidez lortutakotzat kalifikatzerik ez daudenean.

c) Lanak benetan Espainian egitea. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da, lanen zati bat atzerrian eginga izan arren, betiere lan horiei dagozkien ordainsarien batura urte natural bakoitzean jasotako lan kontraprestazio guztien %15etik gorakoa ez bada. Ez da kontuan

el mismo se menciona, se homogeneizarán las formas de tributación aplicando, en su caso, las normas de individualización correspondientes.

2ª. Que en el año en el cual se produzca dicha situación, la tributación efectiva por este Impuesto sea inferior a la que hubiese correspondido de acuerdo con la normativa aplicable del territorio de residencia anterior al cambio.

3ª. Que en el año siguiente a aquél en el que se produce la situación a que se refiere la circunstancia 1ª anterior, o en el siguiente, se vuelva a tener la residencia habitual en dicho territorio.

5. Cuando no proceda la aplicación de normas específicas derivadas de los tratados internacionales en los que España sea parte, no se considerarán contribuyentes, a título de reciprocidad, los nacionales extranjeros que tengan su residencia habitual en Álava, cuando esta circunstancia fuera consecuencia de alguno de los supuestos contemplados en el artículo siguiente de esta Norma Foral.

Artículo 4.- Supuestos especiales de obligación de contribuir.

1. Será de aplicación esta Norma Foral a las personas de nacionalidad española, su cónyuge no separado legalmente o hijos menores de edad que, habiendo estado sometidos a la normativa tributaria alavesa de este Impuesto, pasen a tener su residencia habitual en el extranjero, por su condición de:

a) Miembros de Misiones diplomáticas españolas, comprendiendo tanto al Jefe de la Misión como a los miembros del personal diplomático, administrativo, técnico o de servicios de la misma.

b) Miembros de las Oficinas consulares españolas, comprendiendo tanto al Jefe de las mismas, como a los funcionarios o personal de servicios a ellas adscritos, con excepción de los Vicecónsules honorarios o Agentes consulares honorarios y del personal dependiente de los mismos.

c) Titulares de cargo o empleo oficial del Estado Español como miembros de las Delegaciones y Representaciones permanentes acreditadas ante Organismos Internacionales o que formen parte de Delegaciones o Misiones de Observadores en el extranjero.

d) Funcionarios en activo que ejerzan en el extranjero cargo o empleo oficial que no tenga carácter diplomático o consular.

e) Funcionarios o personal laboral al servicio de la Administración Pública Vasca destinados en las delegaciones del País Vasco en el extranjero.

2. No será de aplicación lo dispuesto en el apartado anterior:

a) Cuando las personas a que se refiere no sean funcionarios públicos en activo o titulares de cargo o empleo oficial y tuvieran su residencia habitual en el extranjero con anterioridad a la adquisición de cualquiera de las condiciones enumeradas en el mismo.

b) En el caso de los cónyuges no separados legalmente o hijos menores de edad, cuando tuvieran su residencia habitual en el extranjero con anterioridad a la adquisición por el cónyuge, el padre o la madre, de las condiciones enumeradas en el apartado 1 anterior.

3. Las personas físicas que adquieran su residencia fiscal en Álava como consecuencia de su desplazamiento a territorio español, podrán optar por tributar por el Impuesto sobre la Renta de no Residentes, manteniendo la condición de contribuyentes por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, durante el período impositivo en que se efectúe el cambio de residencia y durante los cinco períodos impositivos siguientes, cuando, en los términos que se establezcan reglamentariamente, se cumplan las siguientes condiciones:

a) Que no hayan sido residentes en España durante los 10 años anteriores a su nuevo desplazamiento a territorio español.

b) Que dicho desplazamiento se produzca como consecuencia de un contrato de trabajo. Se entenderá cumplida esta condición cuando se inicie una relación laboral, ordinaria o especial, o estatutaria con un empleador en España, o cuando el desplazamiento sea ordenado por el empleador y exista una carta de desplazamiento de éste, y el contribuyente no obtenga rentas que se calificarían como obtenidas mediante un establecimiento permanente situado en territorio español.

c) Que los trabajos se realicen efectivamente en España. Se entenderá cumplida esta condición aun cuando parte de los trabajos se presten en el extranjero, siempre que la suma de las retribuciones correspondientes a los citados trabajos, tengan o no la conside-

hartuko ordainsari horiek lurralde espainiarrean lortutako errentatzat hartzen diren martxoaren 5eko 5/2004 Errege Dekretu Legegileak, Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Legearen Testu Bateratua onartzekoak, 13.1.c) artikuluan jasotakoaren arabera. Lan kontratuan ezarritakoaren indarrez zergadunak funtzioak hartzen baditu bere gain taldeko beste enpresa batean eta lurralde espainiarretik kanpo, Merkataritza Kodeak 42. artikuluan jasotako eran, aurreko muga %30ekoa izango da.

Atzerrian egindako lanengatik jasotako berariazko ordainsarien zenbatekoa frogatzerik ez dagoenean, lan horiei dagokien ordainsaria kalkulatzeko langileak atzerrian eman dituen egun kopurua hartuko da kontuan.

d) Lan horiek egoitza Espainian ez duten enpresa edo erakundeentzat, edo egoitza Espainiatik kanpo duen establezimendu iraunkor batentzat egitea. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da zerbitzu horien onuradunak honako hauek direnean: egoitza Espainian duen enpresa edo entitate bat edo, bestela, lurralde espainiarrean egoiliarra ez den entitate batek bertan kokatua duen establezimendu iraunkorra. Toki aldaketa enpresa talde baten barruan gertatu bada, Merkataritza Kodeak 42. artikuluan ezarritakoari jarraiki, eta bakar-bakarrik ondorio hauetarako, beharrezkoa izango da langilea egoitza Espainian duen taldeko enpresak kontratatzea edo lurralde espainiarrera egin beharreko toki aldaketa enplegu-emaileak agintzea.

e) Lan harreman horretatik eratortzen diren lan etekinak Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergatik salbuetsita ez egotea.

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergagatik tributatzea aukeratzen duen zergaduna obligazio erreagatik geratuko da Ondarearen gaineko Zergari lotuta.

5. artikulua.- Itunak eta hitzarmenak.

Foru arau honetan jasotakoak ez du ezertan ere eragotziko Espainiako barne antolamenduaren parte diren nazioarteko itun eta hitzarmenetan xedatutakoa.

II. TITULUA ZERGA-EGITATEA

6. artikulua.- Zerga-egitatea.

1. Zergadunak errenta bat lortzea hartzen da zerga-egitatzat, errenta hori non sortu den eta ordaintzailearen egoitza non dagoen kontuan izan gabe.

Foru arau bidez ezartzen diren errenta egozpenak ere errenta lorpenatzat joko dira.

2. Ondoko hauek osatzen dute zergadunaren errenta:

- Lanaren etekinak.
- Ekonomia jardueren etekinak.
- Kapitalaren etekinak.
- Ondarearen irabazi eta galerak.
- Foru arau bidez ezartzen diren errenta egozpenak.

3. Zerga-oinarria zehaztu eta Zerga kalkulatzeari begira, bi motatakoa izango da errenta: orokorra eta aurrezpenarena.

7. artikulua.- Errenten zenbatespena.

Lanaren eta zerbitzuen prestazioak, eta ondasun eta eskubideen lagapenak, ordaindutzat joko dira foru arau honetan ezarritako eran.

8. artikulua.- Zergari lotu gabeko errentak.

Honako errentak ez dira zergari lotuta egongo:

a) Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari lotuta daudenak.

b) Epailen erabakiz urteko mantenurako ordainketak direla-eta gurasoengandik jasotzen direnak.

9. artikulua.- Errenta salbuetsiak.

Honako errentak egongo dira salbuetsita:

1.- Terrorismo ekintzen ondorioz jasotako prestazio publikoak.

2.- Baliezintasun gabeko lesio iraunkorregatik, ezintasun iraunkor partzialagatik osoagatik edo erabatekoagatik edo baliazintasun

ración de rentas obtenidas en territorio español de acuerdo con el artículo 13.1.c) del Texto Refundido de la Ley del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, aprobado por el Real Decreto Legislativo 5/2004, de 5 de marzo, no exceda del 15 por 100 de todas las contraprestaciones del trabajo percibidas en cada año natural. Cuando en virtud de lo establecido en el contrato de trabajo el contribuyente asuma funciones en otra empresa del grupo, en los términos establecidos en el artículo 42 del Código de Comercio, fuera del territorio español, el límite anterior se elevará al 30 por 100.

Cuando no pueda acreditarse la cuantía de las retribuciones específicas correspondientes a los trabajos realizados en el extranjero, para el cálculo de la retribución correspondiente a dichos trabajos deberán tomarse en consideración los días que efectivamente el trabajador ha estado desplazado al extranjero.

d) Que dichos trabajos se realicen para una empresa o entidad residente en España o para un establecimiento permanente situado en España de una entidad no residente en territorio español. Se entenderá cumplida esta condición cuando los servicios redunden en beneficio de una empresa o entidad residente en España o de un establecimiento permanente situado en España de una entidad no residente en territorio español. En el caso de que el desplazamiento se hubiera producido en el seno de un grupo de empresas, en los términos establecidos en el artículo 42 del Código de Comercio, y exclusivamente a estos efectos, será necesario que el trabajador sea contratado por la empresa del grupo residente en España o que se produzca un desplazamiento a territorio español ordenado por el empleador.

e) Que los rendimientos del trabajo que se deriven de dicha relación laboral no estén exentos de tributación por el Impuesto sobre la Renta de no Residentes.

El contribuyente que opte por la tributación por el Impuesto sobre la Renta de no Residentes quedará sujeto por obligación real en el Impuesto sobre el Patrimonio.

Artículo 5.- Tratados y convenios.

